

EGĀN



1

1954

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País

SUMARIO

Antonio Arrúe: Juan Bautista Agirre.

Artetxe'tar Joxe'ren: Bidez-Bide.

Rabindranat Tagore'ren: Kartero gaiztoa, Odei ta uin, Deia, Nausitasun, Gizontxo, Txanpaka-lore.

Euskaltzaindi-ko 4'garren solas-aldia

ANTONIO ARRUE

JUAN BAUTISTA AGIRRE

Juan Bautista Agirre'ren bizitzaren ta bere euskerazko lanen berri laburra. Au izango da gaurko nere itzalditxoaren gaia.

Ondoren, bere euskal-liburuetakoz zati batzuk irakurtzeko asmoa ekarri det. Beti bai-zaigu atsegin, gure literaturako egille zarrek erabiltzen zuen euskera entzutea.

✓ Gero, jakiñaren gañean nago, bestela ere, billera oetara etortzen diran lagun batzuen gogo berezia, auxe dala. Alegia, gure antziñako idazle garaien beti zar eta beti berri dan izkera ausnartzea. Ta ausnartzeko, aldeaurrez irakurri egin bear noski.

Ta nik uste, gañera, Juan Bautista Agirre'ren izkerak merezi dua-la benaz irakurtzea. Agirre'ren euskera, Orixek ederki dionez, irakurgarriago ta maitagarriago da-ta.

Asteasu'n, milla ta zazpireun eta berrogei ta bigarren urtean, Idogarate deritzan etxean inñolaz ere jaio zan Juan Bautista Agirre. Ta ill, Asteasu'n bertan. Elizegi-etxean, milla ta zortzireun eta ogei ta irugarren urtean.

Batzu-batzuk, Juan Bautista Agirre-Andia edo Aundia, deitzen diote. Andia au, ta ez Aundia, izengoia, abizena, apellidoa degu. Nere ustez, Agirre Andia, ez bat, baizik bi apellido dira. Bein batez, Asteasu'ko Elizako liburu zarretan, Juan Bautista'ren bataio-agiriari begiralditxo bat eman giñukan, eta beintzat, bi apellido bezela agertzen dira.

Juan Bautista Agirre, guziok ongi dakizutenez, apaiza zan. Len eta orain eta beti, euskerak ainbeste zor dien elizgizon —bai apaiz ta bai praille— agurgarri oietako bat.

Gizon argia ta ikasia, bere jaioterriko Erretore izan zan lenda-bizi, ta gero, Asteasu'ko Erretore'tza utzi-gabe, jakiña, Gipuzkoa'ko apaiz-batzar nagusiko goien-goieneko kargudun, aldi luzean.

Iztun bikaña, euskal-Krisostomo ta baita Demostenes izengoitiz ezagutzen omen zuten noski Gipuzkoa'ko leku batzutan.

Gañontzean, eta Asteasu'n gizaldiz-gizaldi dijoazen ta gordetzen diran bere oroimenak erakusten digutenez, maiz kopeta-illun eta zorroztz-samarra izan arren, oso gizon atsegiña omen zan. Ta, gañera, eskuzabala.

Bateon batek galde-egingo du bear bada gaiztoz bere baitan: Apaiza ta... eskuzabala?

Baña, goazen aurrera.

Juan Bautista Agirre'k bi lan eder utzi zizkigun. Bata, "Confesioco eta Comunioco Sacramentuen gañean Erakusaldiak", deritzana. Au da ezagunena inolaz ere. Ta bestea, neretzat onena, iru liburu osatzen dituana. Ona emen iru zati auen izen-buruak: "Jesu-Cristoc Bere Elizari Utzi ziozan zazpi Sacramentuen gañean eracusaldiak", "Jaungoicoaren legueco amar Aguinteen gañean eracusaldiak", eta "Jesu-Cristo eta Virjiña chit Santaren Misterioen eta beste cenbait gaucen gañean eracusaldiak".

Lenengoa, euskaldunei eskeñi zien, eta azkenekoa berriz, Apaiz-euskaldunei. Onek, erderazkoa baña, itz-aurre labur gañ-gañeko bat ba-dakar. Bere adiskide ta lagun aundi Moguel'i zuzendua noski, diotenez.

"Confesioco eta Comunioco Erakusaldiak" deritzan liburutoak, ba-dakarzki azken-itx batzuk ere. Gizaldi artako idazleek —Añibarro'k, esate baterako— beren eliz-liburuetan ezartzen zituzten antzekoak, baña, nere ustez, egokigoak. Onela diote: "Iracurlari. Bucatzen ditut Eracusaldi oec. Gauz onic arquitzen badezu, ori da on guciaren Emalleagandic datorrena; baña utseguiteac izango dira nereac bacarrik, eta guciac, diranac dirala, ipintzen ditut Eliz Ama Santaren eta Iruñeco gure Apaiz nagusiaren mendean. Uqitu diran gaiac dira ederrac, eta doai obeetaco besteren batec edertu ta apaindu litzaque erraz".

Euskaldunak, gipuzkoarrak beñepein bai, arrera ta begirune ezin obeak egin zizkaten Juan Bautista Agirre'ren lanei.

"Confesioco eta Comunioco Erakusaldiak", egun urteren barrunbean, iru bider argitaratu ziran. Azkenengoz, orain berrogei ta amairu urte.

Euskal-liburu batentzat, badala zer-edo-zer, derizkiogu.

Beste iru liburuak bein bakarrik ikusi zuten argia, milla ta zortzireun eta berrogei ta amargarren urtean. Liburu auezaz, onela dio Orixek: "Agirre'ren iru liburu gizenak ez dabilta edozeinen eskuetan, eta euskaldunak eztakit bear adiña ezagutzen dituten".

Juan Bautista Agirre ezta, esate baterako, Axular'en mallakoa. Ba-

ña, nere uste apalez, gaurko gure gizaldi onen aurretik egundaino gipuzkeraz, Gipuzkoa'ko dialektoan, idatzi zuten egillirik nagusiena, bai noski. Oyarzuar Aita Mendiburu, askok edo batzuk beñepein diote, Agirre'ren gañekoa dala. Ta egia, iñolaz ere. Baña, Mendiburu'k etzun bere irakurgaietan Gipuzkoa'ko euskera erabili. Bere liburu guziak, napar-euskeraz-edo eskribatu bai-zitun.

Jose Inazio Gerriko, Mutiloa'ko Erretorea, ez da Agirre'ren mallara iristen beintzat. Agirre'ren euskera Gerriko'rena baño askozaz garbiagoa ta jatorragoa da. Bere "Cristau Doctrina guztiaren espli-cacioaren sayaquera"-ko orrialde batean, onela dio Gerriko'k: "¿Cerc eguiten du Jaungoicoaren beraren gloria eta atsegiña, Bere izate *infinitamente perfecta*, eta bere cabu bagueco edertasuna beti *contem-plantzen egoteac*; gloria andiagoric Jaungoicoac berac ere ecin izan dezaque, bada gloria ori bera gozaten dago zorioneko anima, eta *diferencia* dago bacarric gozatzeco moduan", eta abar. Onelako mordolokeririk etzun Agirre'k beñere bere lanetan ezarri.

Ezta, bada, arritzekoa, Gipuzkoa'ko Apaiz-batzar nagusiak, bere milla eta zortzireun eta berrogei ta bederatzigarren urteko billeran Agirre ta Gerriko'ren lanegiñak argitaratzea erabaki ondoren, gero bienak argitara emateko adiña diruren jabe ez izan noski ta, Agirre-renak bakarrik moldiztegira bidaldu ba-zitun.

Lardizabal, Zaldibi'ko Erretorea ere, bere "Testamentu Zarreco eta Berrico Condaira" ezagunean, Agirre baño beeraxeago ibilli zan, bai joskeran ta bai idaztankeran, estiloan, batez ere. Lardizabal'en idaz-tankera gora-berik gabekoa da, bare-barea beti. Agirre'rena berriz, gaiak eskatzen dun gisakoa. Batzutan samurra; bestetan zaintsua; askotan edo geienean, bizi ta indartsua.

Agirre'ren izkera, erdi-Goyerri erdi-Beterrikoa da. Berak onela dio, "Confesioco eta Comunioco" liburutxoaren itz-aurrean: "El dialecto en que se escriben las instrucciones, es un medio entre el de Beterri y Goyerri. Se diferencia del de Hernani y San Sebastián, v. g., en dezute, dute, dutenac, dituzute, dituzte, etc., que es según el modo de San Sebastián, y en el nuestro: dezue, due, duanac, duenac, dituzue, ditue".

Agirre'k bezela, euskal-aditza, berboa, iñork gutxik eskuratu ta menderatu du. Laburkiro ere gañera, dekero erabiltzen zun beti ber-boa. Entzun bestela: "Aitortzen due eguia au fede gabeac ere, eta eracusten digüe zentzugabeco abereac berac, eta ¿edoceñ onguilleri esquer onac zor bazaizca, zer zorco ez diogu Jesus onari?"

Agirre'ren euskal-joskera berriz, ez da izango gaur dan eguneko idazle batzuen bezin egokia, baña, bai orratik bere denborako geie-nena baño ohea.

Batzu-batzuk arkitzen dituzte Agirre'ren irakurgaietan "solecismo" bat baño geiago. Baña, egia esan, askotan, euskal-itiz-lotura dala-ta, nork erabaki noiz erortzen geran eta noiz ez, "solecismo" dala-ko utsegite ontan?

Gaiontzean, Agirre'ren euskera garbia da, oso garbia ere garai artarako beintzat, eta gañera ugaria.

Esan izan oi-da, Agirre'k, aspaldi-itiz —*arcaismo*— asko-samar erabiltzen dituala. Aztura, apukoa, biska, adiña —gazteleraz, *edad*—, enasa, jaiera, aisia —gazteleraz, *ocio*—, adabatu, dastatu, irozo ta irozgarri, ezperen, alabaña, ta abar ta abar. Baña, oraindik ere Ernio ingurun, itz auek geienak ezagutzen dituzten pranko bizi dira.

Zerbaitxo esan nai nuke, aitatu dituan itz batzuetaz. Jaierak, gaur gazteleraz devoción, ostera, Agirre'k askotan itz au erabiltzen dun gisara, inclinación, antziñan bezela, esan nai du.

Beste itz bat, nere iritzi apalez, euskal-itiz jator eta egokia, Juan Bautista Agirre'ren txit gogokoa, *alabaña* da. Alabaiña, alabaiñan, alabaño, gazteleraz *empero* esan nai dula, dio Azkue'k bere Iztegian. Ta erantsitzen du gañera: "es una de las locuciones más difíciles de ser traducidas". Baña, oker ez-pagaude, Agirre'ren lanetako joskeran pittin bat sakontzen ba-degu, zailtasun au agudo garaituko degu noski. Juan Bautista Agirre'ren izkeran, alabaña itzak, gaztelerazko *pues, puesto que* edo *toda vez que*, esan nai du beti edo geientsunez beintzat.

Ona emen bere "Jesu-Cristoc Elizari utzi ziozcan zazpi Sacramentuen gañean eracusaldiak" deritzan liburuko zatitxo batzuk: "Ez dira Aita ta Ama pontecotzat autu bear fedegabeac, excomiatuac, eza-güeran sartu gabeac, dotrinariac ez daquienac eta bicitza gaiztocoac; eracusle charrac dira *alabaña* onelacoac Ceruraco bidea eracusteco". "Legue zarrean ipiñi cituan Jaunac denbora ari cegozcan Apaizac eta Aita Santua, eta oen eguiteco andiena zan cecor, arcume eta oen antzeco beste gauzac Jaunari esqueintzea; etzan *alabaña*, Jesusec bere legue eder-garbia ipiñi zuan artean Mezaric, ez Confesioco Sacramenturic".—"¿Ceñ ote dira zori-oneco beartsu oec? ¿Ote dira atez ate esquean dabilzanac? Ez guciac beintzat. Badira *alabaña* oen artean, nequeari igues eguiteagatic, esquean dabilzanac". Ta abar.

Onelatsu erabiltzen zuten alabaña itz au beste gipuzkoar idazle zar geienak ere: Lardizabal'ek, Gerriko'k, Gregorio Arrue'k eta abarrek. Baña ez lapurtarrak eta zuberotarrak. Oek, eta ontan arrazoï du Azkue'k, gaztelerazko *empero* bezela erabiltzen zuten, geienean beintzat.

Adibide bat: "Minberatasun orren ariaz eta amoreakatik arima garbienek probetxuekin irakur aal dezaten Axularren liburu ederra, garbitu, leuntu eta apaindu ditugu leku arro, zakar eta gordinegi zi-

renak; *alabaina* osorik uzten dugularik Axularren lanegina”, dio In-txauspe’k.

Baditu Agirre’k, bere buruz asmatutako esaera batzuk ere. *Bio-tzez biotz*, esate baterako. “Confesioco eta Comunioco” liburuxoan, Komunio denboran eta ondoren egin bear diran gauzak erakutsi bi-dez, onela dio: “Zazpigarrena, joango naiz lecu egoqui batera, Jau-narequin *biotzez biotz*, ordu laurden batean bederic itzeguitera”.

Badakarzki bere liburutetan esaera zar egoki bat baño geiago ere. Ara erakuspen bat: “Ekusten ez duan begiak, negarrik ez”. Atsotitz au, Axular’ek bere “Geroko-Gero”-n onela dakar: “Ikusten ez duen begiak eztu minik”. Ta bizkaitarrak berriz, “ikusten eztaben begiak, gaxkik ez”, esaten dute.

Agirre’ren aldakuntza, jatorrena derizkiogu.

Juan Bautista Agirre’k, lengo ta oraingo ta betiko gipuzkoar ja-tor geienak bezela, ba-ditu, tarteka, aldarte oneko une batzuk. Begi-ra, bere Erakusaldi batean, nola emakume itz-jario baten konpesioa kontatzen digun:

“Badator berendia. Onec eguin dio birau bat suyari, eta itz bian esan dezaque bekatu au. Asco du alabaña esatea cer birau bota dion, biotzetic edo bestela bota dion, eta iñore aditu duan edo ez. Baña au onela eguin bearrean, nastutzen ditu milla contu era onetan:

—Jauna, irten zan gure Pepe goicean mendira; eguin nituan ta-loac eta baratzuri-zopac, eta etzan agiri.

—Emacumea, ceñ da gure Pepe?

—Nere suya, zori gaiztoan neretzat aguertu zana.

—Emacumea, utzi itzatzu naspilla oriec eta esazu guerta zatzun be-catua.

—Bai, Jauna, bere-bereala. Juan zan bada mendira; eguin nituan taloac eta baratzuri-zopac, eta denbora lucean egon guñan ari ichedoten.

—Emacumea, esazu eguin dezun becatua, alferric denbora igaro gabe.

—Bai, Jauna, bereala bucatuco det guzia. Etorri zan noizbait; esan nion nola egon guñan ichedotez gogaituac. Au asco izan zan equiteco neroni isecaz eta edoceñ gauza esaten. Orduan bota nion birau bat, esaten niola: niri ematen cizquidan naigabeac ecusico al zituala bere gañean...”

Axular aitatu degun ezkerro, ezin baztartuko degu Juan Bautista Agirre’zaz askotan esan izan oi dana. Alegia, lapurtar eskribatzalleen alako kutsu bat badula noski. “Euskeraz ere ikasia zen, eta lapur-tarren jario apurra baduela emaiten du: argitasunez beintzat bai”, dio Orixe’k.

Aldiz-aldiz, Agirre'ren idaz-tankerak, lapurtar-antz-apur bat bada, ezin uka. Ta ez da arritzekoa. Orduko gipuzkoar gizon ikasiak ezagutzen baizituzten, inñolaz ere, lapurtarren lanegiñak.

Ona, Lardizabal'ek, len aitatutako bere "Condaira"-ko itz-aurrean zer dion: "Eguia da, Aita Fray Juan Antonio Ubillos-ec Apaiz Fleuri-
ren escu-liburucho bat, cenbait guertacari dacarzuquiena, eman zizue-
la, euscarara ederqui itzulia; baña nai litzaquean baño laburragoa
da. Francia-ko Apaiz Larregui-c ere, orain irurogueita amar urte di-
ralaric, arguitaratu zuen Testamentu Zarreco eta Berrico Historia-
ren icenarequin liburu luceago bat, munduaren asieratic, Jesu-Cris-
to gure Jauna cerura igo zan arterañoco berriac cerbait cearogo eta
zabalquiago ematen dituen; baña liburu onec, batetic Labort-eusca-
ran ipiñia, bestetic zuen artean urria eta bacana dalaco —urria eta
bacaña, baña ezaguna noski—, dezuten utsunea ez du, nai bezala, be-
tetzen".

Baña, dana dala, ta esanak esan, Agirre'ren liburuetan oartzen dan
lapurtarren zantzu ori, ez da aundia. Gañera, gerta liteke, orduko
idazle lapurtarrak, gipuzkoarrei ere zerbaitxo, euskera-gai auetan, zor-
izatea. Ez ditugu aztu bear, Larramendi'ren itz batzuk. Zuberoka'ko
euskarazaz mintzatu ondoren, dio: "El dialecto labortano está más
extendido y cultivado en lo hablado y en lo escrito, y en él se va
usando mucha sintaxis del dialecto de Guipúzcoa, que es el más cla-
ro y que en todas partes se oye con más gusto".

Ta orra, uste gabe, ta ezarian, euskeraren batasun-gai labaña ikutu.

Badet nik ere, zuek guziok izango dezuten bezelaxe, gai onezaz,
nere iritzia. Ordea, beste egokiera batean azaldu bear ko noski.

Baña, alaz guziaz ere, oartxo bat edo beste zuzendu nai nizkitzute-
teke.

Bata da, oker daudela, oso oker, nere iritziz beintzat, gipuzkera,
Gipuzkoa'ko euskal-dialektoa, belaska ta eme-samarra dala diotenak.
Onelakoak, Juan Bautista Agirre'ren lanei begiraldi bat ere, apika,
sekulan emangabekoak dirala, guk uste.

Bestea, ez Azkue ta bere jarraitzalleak bakarrik, baita lengo eus-
kalzale zar askok ere, gipuzkera jotzen zutela, alegia, euskaldun gu-
ziak edo geienak elkar ulertzeko izkelgirik egokiena noski.

Adibidez, Gerriko'k, orain eun ta berrogei ta amar bat urte in-
guru, bere len aitatutako *Sayakera*-n itz-aurrean, onela zion:

"Con este mismo fin se da a luz este Ensayo, aunque todavía in-
completo, de la explicación de toda la doctrina de Jesucristo, repar-
tida en ciento eatorce pláticas bascongadas, en dialecto guipuzcoano,
que entienden aun *generalmente* los Navarros, Vizcainos y Alaveses,
dirigidas a los pueblos bascongados", eta abar.

Euskeraren batasun-gai labañ onekin batean nasturik, beste auzi

bat ere, are labañagoa, erabiltzen dute batzu-batzuk. Antzemango zifukazuten guziok, euskera-garbi-zale ta euskera-errez-zaleen arteko aspaldiko eztabaida aitatu nai izan dedala noski.

Guk gure bizitza guzian, bai euskerazko bai erderazko, azal, estalki edo janziara apañ eta ongi ornitutako literatura-lanen zale amorratuak izan gera beti ta beti. Baña, azalak, estalkiak eta janzierak ezezik, mamiak, muñak eta barrunbeak ere, ba-dutela ajola, derizkiogu. Ta ez nolanaikoa.

Gogora-gaitezen, Axular'ek berak "Gero"-ko itz-aurrean ezartzen dun ešanaz: "... euskara eta euskararen mintzatzeko moldeak eta diferentziak utzirik, zeren hek azala eta lorea bezala baitira, har eza-zu liburutto hunen fruitua, barreneko mamia".

Ez gera egundaño aztuko, bein batez gazte giñala irakurri genitun Ricardo Palma, Peru'ko eskribatzalle ezagunaren bertso bazuetaz.

Galde-egin zioten nunbait, ea nola moldatzen diran itz-neurtuak, eta Palma'ren erantzuerak, ez itz-neurtuak bakarrik, baita era bat bes-telako literatura-lan guziak moldatzeko ere, balio du noski.

Ona emen bertso gogoangarri aiek:

"...forme usted líneas de medida iguales;
y luego, en fila, las coloca juntas,
poniendo consonantes en las puntas.

—¿Y en el medio?

—¿En el medio? ¡Ese es el cuento!
¡Hay que poner talento!"

Or dago korapilloa, or dago maratilla, or dago... kaka.



The first part of the document discusses the various aspects of the company's operations, including its financial performance, market position, and the challenges it faces. It highlights the company's commitment to innovation and growth, and its ability to adapt to changing market conditions.

In the second part, the focus is on the company's strategic vision for the future. It outlines the key areas of investment and development, and the long-term goals that the company aims to achieve. The document also addresses the company's social and environmental responsibilities, and its efforts to promote sustainable business practices.

The third part of the document provides a detailed overview of the company's organizational structure and key personnel. It identifies the individuals responsible for various departments and functions, and describes their roles and responsibilities. This section also highlights the company's commitment to talent development and employee well-being.

The final part of the document concludes with a summary of the key findings and recommendations. It reiterates the company's strengths and opportunities, and offers insights into the future prospects. The document is intended to provide a comprehensive and up-to-date overview of the company's current status and future outlook.

Bidez-Bide

Eixaide'tar Jon'ek euskerara emana

OARRA: Orain agertzen diran iru atalok, lengo zenbaki batean agertu ziranen aurrekoak dira. Paper naste batek oker ontaratu giñun. Asketsi, beraz.

Azken atalotan egiñiko irar-utsegiterik aundienak oetxek izan ziran. "Berabidean ezin etzizko udazkena da". Onela zuzendu: "Berabidean ezin etsizko udazkena da".

"Giputz-idazleak eta euskotar idazleak eskuari". Onela zuzendu: "Giputz-idazleak eta euskotar idazleak eskuarki".

"Gauzaren adierazteko eta bereixi, xuxen eta inguru-minguruketarik gabea dute". Onela zuzendu: "Gauzaren adierazteko era bereizi, xuxen eta inguru-minguruketarik gabea dute".

"Ni neu, ongi gogoratzen naiz zaldi-girgillen txilin otsaz Zumarraga ta Azkoiti bitartean dagon iru leguako mendarte goibel eta medarra". Onela zuzendu: "Ni neu, ongi gogoratzen naiz zaldi-girgillen txilin otsaz Zumarraga ta Azkoiti bitartean dagon iru leguako mendarte goibel eta medarran".

"Mendarte bakarti ta illunaren burua Loiola'ko ibar argitsuaz zabaltzen da". Onela zuzendu: "Mendarte bakarti ta illunaren buruan Loiola'ko ibar argitsua zabaltzen da".

Nor zanaren betri ez dakigun olerkaria

“Nork ez ote ditu gorde maitemiñez bere mai-zorroan edo-ta oroi-menaren zirrituetan begiko olerkariaren bertsoak?” galde egiten du Armando Palacio Valdés'ek bere “Testamento literario”n.

Aipamen au dala-ta, mutiko nintzalarik Gipuzkoa'ko erriburura eldu-garaia datorkit burura. Gure adiskide ziran sendi on batekoak gogor leiatu ziran arrotz-etxe on bat billatzen, gazte-gaztetan utzi bearreko etxearen epeltasun apurtxo bat nerekin izan nezan. Idoro zidaten etxeak asmuok mukurutu zituala aitoe bearrean naiz.

Bizi ere, euskaltzale yakitun batzuk bizitu ziran bertan. Inor edo an zan oraindik ni eldu nintzan garaian. Oraindik-oraintsuarte Muxika'tar Gergori gizon zuzenaren bizilekua izan zan. Ezkontzerakoan aldendu zitzaigun bertatik. Muxika'k zuzenki maite izan zun bere erria, xeetasunez eta bere buruaren agertzea billakatu bage, alegia.

Ezagun zan egonberri zala. Etxe guzian sakabanaturik liburu, idazti, aldizkari ta abar baizebiltzan, geientsuenak eusko-yakintzari buruz ziardutenak. Makiñatxo bat labur-itz, idaztorri ta oar ere ba'ziran antxe. Muxika'ri, eusko-yakintzaren egarritan beren lanetarako aolku eske yende askotsu urbildu zitzaion noski ango egonaldian... Yakingirotsuak ba'zun an non bazka. Ene yakinbearrak laister ekin zion paperez betetako apal batzuk lardaskatzeari. Zârra izanarren, zârragoa ta mardulagoa herriz— irarritako papera beti da yakin-garri.

Beñola, kuaderno batzuk idoro nitun hule beltzez estalita. Euskaldun olerkari baten eskutidazkiak ziran, antza. Lenen saioak ziran, kantagai-ariak, olerki erne-berriak. Ondorengo orrialdetan olerki berberak beztualdiz, zuzenketaz, oarraz eta osakiñez yosita. Bere yardun-gaian eldugabea ezagun zizun, baño, norbere egintzak sekula aintzakotzat artzen ez dituztenen gixa, bere buruaren estu artuzale ere bai.

Kuaderno batean bere biotz-sentipenak zitun iraulirik. Maitemiñezko kantagaia zizun, alegia. Bi izkuntzetan zitun emanak, euskeraz eta gazteleraz. Ango aitorketa xalo ta biözberak, orain, urteen bu-

ruan umekoi-xamarrak iduri ba'zaizkit ere,aldi artan atsegifñez bete niñuten. Orrialde aietan adiskide bat topatu nun eta olerkaria be-
rau. Gaztaro artan ene begi lausotuz igarri ta somaten nitun bidee-
tan barna bultza niñun olerkariak. Kuadernuok neretzat gelditu zi-
ran. Aldiok eztira noski biotz-berakioen adiskide, baño, ala ta guziz
ere enaiz lotsatuko gorde nitula eta oraíndik ere gordeak dauzkata-
la esaten. Olerkiok irakurriz, norbait ezpañetan irri-gaizto dula iku-
si ba'neza, ezagutu ez dutan adiskide oni saldukeri egin bainion, ene
buruaz lotsa-lotsa egingo nintzake.

Ezta ezer idorotzen alabearrez; arkitzen ditugun gauzak zerbaiten-
gatik eta zerbaiterako arkitzen ditugu. Arkitzeok ba'dute beren ez-
kutupeko. Bi gizonak alkarrekin topo egitea askotan miragarritzkoa
izan oi da. Topatzen dugun orok ba'du bere arrazoibide; agirian ez-
paldin ba'dago, ezkutuan datzanaren herri asmatzen leiatu bear du-
gu. Ikusi eziñeko esku batek gauzak atxeman ditzakegun lekuan
yartzen dizkigu. Anima zindo ta garbi baten eskuz idatzitako idaz-
lan aietan alkar-arkitze on baten oroia daukat nigan. Gaztaro saies-
kor ortan ostikoketaz eta urdandaz (emagalduez) mintzatzen baita
maiz.

Olerkari ura Eltzo'tar Yoseba omen. Bere bizia itz laburretan ager
geneza. Lenen-irakastearen maixu egin ondoren lege-ikasteari ekin
zion bere lanbideak uzten zizkion txolartetan. Ogeitabi urtetan il zan,
Musika ta Eresbatasun ikasbideak iaioi garaitu-berri zitularik. Bere
olerkirik geientsuenak "Euskalerrriaren alde" zeritzan aldizkarian eta
1917'gn. urte ingurutsuan gure eskualdean agertzen ziran egunkari-
astekarietan argitaldu ziran.

Eltzo'ren olerkiak urri-urriak dituzu. Etengabeko zuzendu-lanean
aritu ondoren argitaratu oi zitun doi-doi gure olerkariak. Muxika zun
zirikatzaile argitara zitzan. Eltzo'k bere buruarentzako idatzi oi zun
berexiki. Ontaz yabetzeko bere eskutidazkiak ikusi besterik eztago.
Arabakiz beterik daude, bañan olerkariak bere goi-maillara eldu-us-
tea artu dunean, izkirik onenaz eta arduratsuenaz aldatzen, du atse-
gin. Beztualdi aiek eman zidaten ederlari onek neke ta ixilpean egin-
dako ore-lanaren berri. Ezagutzeke egindako adiskidea ene lenengo
maixu ta ixilkide izan nuen ben-benetan.

Euskera izkuntza egokia degu bertotarako, baño ala ta guziz ere
Eltzo'k etorri bizia zizun eskideak billakatzen. Ederlari onek igartzen
zion onek zekarkioketan arriskuari, erreztasunak arrapaladan aritze-
ko griña sortzen baitu aixa.

Ezaugabeko adiskidea liriko yator-yatorra zan; biotza ikubera
zizun. Bere gunak ixil, etengabe ta apal zerion, leku eder eta bakar-
tian gorderik dagon iturri galduaren iduri. Bere anima xamurtasunak

garaiturik zetzan. Zekusan guztia, zeru-diztirak zerizkion olerki garbitan iraultzen zun. Bere animaren irudi baitziran.

Aitzondo basetxeko mutikoak eskolara yoateke daude zenbait egun. Geroenean asi dira berririo, bañan yantziak oro beztuta amaren utsean. Yolas-garaian, Aitzondo baserriko mutikoak zalapartari aier zaizkio; bekoki illun eta uzkur bere adiškidetxoen yostaketai begira daude. Eltzo, barne-muiñetaraño ikututa ume-zurtzei begira dago. Begiak aldatzeke, igarri-ezean zabaldu du bere maixu-maia xoko-bazterretik bere biotz-miñak gordetzen ditun kuadernua artzeko...

Alaxe zan orotan. Aurtxo bat bere amaren bularrari atxiki zekusanean; aurtxoa zetzan seaskara urbiltzen zanean; maite-kantetan aritzen zanean. Kantagai oietxek zitun begiko. Bere olerki guziak erromantiko usaia darite. Idatzirik utzi zigun guziak ezoa dario oraindik, intzeptu-berri bailegoan. Eder-atsa anima barnetik zetorkion. Bere oldozkuna igarri zenezaioke, gertatzen zaiona yakin. Bere anima olerkitan iraulita dago garden-garden. Erromantiko yatorra dugu.

Eltzo bere biziaren udaberri bete-betean igartu zitzaigun. Gazte bat, gazte danez, eder-loralditik urrunduta dago. Baña, ala ta guziz ere musikari ta olerkari zan bidenabar...

Olerkaria nolabait ere musikari izan oi da. Olerki ta musika ederti bizkiak dituzu, bañan orain ez ditugu alderdi ortatik ikusten. Shakespeare'k olerki ta musika anai-arrebak dirala esanarren, arnas berberatik sortutako bizkiok nekez daitezke bizikide gizon batengan. Bizi izan ba'ledi ere, Eltzo olerkaria laister irato luke izen berberako musikariak.

Alabaña, olerki usaiez ezeturiko bizialdi labur eta apal aren berrri eman zidaten kuadernoak on aundia egin zidaten. Nork daki eskutidazki aiek zirikagarri bearrekoak izan ote zitun zaletasun kidesuak eraginda beroiek leitsuki azterten aritzen zan mutillak?

Matxinbenta'ko olerkaria

Beste nonbaitetik, eskualde bikañagoari aitz, osertz zabalagoari so, onela abestu zun Yauregi'tar Koldobika jaunak:

“Baseliza zarraren babes maitetsuan
lar eta intza darioten lau ormen barruan
Kanposantutxo bat lo daukat baztarrean
Ernio aurrez-aurre. Txindoki atzean”.

Beste leku onek zelaigune medarrak ditu. Mendarte estu ta otza baita, Murumendi'ren egal-sakonean kokaturik. Azpeiti'tik Salbatore'ko bidegurutzera Mandubi'ko mendi-lepoan barrena dioan bide barkartiaren erditsu aldera dago.

Leku oni Matxinbenta deritzaio. Dozenatxo bat basetxe edo-ditu eliz-inguru. Onek, ezaun du aspaldi gabe berriztua izan dana.

Torra, arriz egiliko seikotea da, saietsoak almena txikiz apainduta. Arkupe oiesari aitz pelota-toki txiki bat dago. Au ere herri-berria ta zementuz eraikia. Etxetartetatik errekatxo garden bat dioa la-bainki.

Etxe saillean, batto zuri-zuria da. Tellatua egal bitan du, musua erdibituz. Aintzinean loretegi kaxkar bat esi oies batez inguratutik. Apaiz-etxea da.

Atea igaro-ta ezkaratetik ezker-aldera, be alde illun batean ko-neju-kaiol bat doi-doi nabaitzen dan inguruan, ollo batzuk atzaparka ari dira. Apaizaren bizikleta kako batetik zintzilik datza. Oin otsa nabaitzen zakur bat atera da bizitzako atetik zaunka gorrian. Gizezko baten abotsak ordea ixil erazten dio eta burua makurtuta gur-gurka itzultzen da.

Gela txukunetik, sapaillu oiesean barrena datorren erreka

poll-poll etengabea entzuten da soilki. Leku artan ixiltasuna da nau-si. Emen bizi da Yauregi olerkaria. Esan lezake bein eta berriz:

“Bakardadeak artu nau bere altzoan
ta ixiltasuna daukat musuka ondoan”.

II

Yai egun banaka batzutan atsegin izan oi zait, meza-nagusia amaizerako edo-ta arratsaldean bezpera aurretik erri koxkor bakarti batean nere burua ikustea.

Apaiza ta apaiz-urgazlea, beren lagunkoitasun yatorra neri agertuzai daude. Mintza-mintzaka aritzen gaituzu kanpantorreko ezkilak Bezperetarako deia yo arte. Orduan, bekoki zorrotzeko gizonekin, beltzez yantzitako emakumekin, igandez yantzitako mutillekin eta nekakil apainzaleakin nâsita, emeki-emeki elizaratzen gera.

Erri-yendeak bêtik eta ene adiskideak korutik armonium alboan yezarrita, Arrendia kantatzeari ekiten diote:

“Laudate pueri Dominum...”

Magnificat abestu ondoren, olerkaria korutik yatsi ta pulpitorra (1) igotzen da Agurtza esateari ekiteko. Illobi bailiran, lurrean edaturik zapi beltzak eta bi muturretatik sugarra darioten argizaiolak datzate. Apaiz-buruak beroien aurrean il-otoitz sail eder bat esan bearra dauka elizkizuna amaitu ondoren. Erritarrak ez dira aixa aztutzen beren ildakoez.

Atera orduko gazteak pelotan ari dituzu aurtaldeak beren begira dituztela. Arkupean, gizonak benatsu txapelaratzen dituzte eskuak agur itzalkorra apaizari egiñaz. Emakumeak berritsukerian beren basserrietara dioaz eta pelota-toki bazterrean neska gazteak, musugorriturik, euren artean zizaka ari dituzu, beatz-erakusgarri inguruan beren erro-sarioak etengabeko jira-biran dabilzkitelarik.

Udara arratsaldeko giro paketsuan bideberrian bêra abiatu giñan.

(1) Azkue yaunaren libururen batean irakurrik dut “pulpito”ri dagokion euskal izen yatorra. Ezin gogora naiz ordea. Bizkai’ko erri koxkorren ba, tzutan oraindik bizirik dirauna omen. Inork yakin-eraziko ba’lit biotz-biotzez eskertuko nioke.

Leku itzalkor batean, zubixka baten arresian exerita orduak aballan dioazkigu. Azkenean, illunabarraren gainberatzeak, bakoitzari geronen bideak artu-erazten dizkigu: ni, bideberrian bêra urrutian somatzen nuen nere errirantza; apaiz-burua eta urgazlea berriz goralde, beren auzotegira.

Zergatik ote zan yakiteke, tarteka-marteka gibelera so egiñaz nioian, geldi-geldi ibilki bere bideari zerraikion olerkaria ikusj-bearez; orrela, bidearen biurtzeak ezkutazi zidan arte. Ibiltze orrek bere olerkien neurri zirudidan, geldi ta etenkorra, edo-ta bere etxe-albotik labainka dioan errekatxo paketsu, garden, leiarkoia.

Nere laguna, bakartasunarekin adiskideturik dago. Berriz ere badioa oi bezela animen alde oso-osoro iraultzeko, bere ardurapekoekin senti, maite eta nozi dezan.

Ba'dituzu olerkari durunditsu eta otsederberak. Beroientzako itza da oro eta sentipena uts. Anima elkor dute. Yauregi ez daiteke orietakoa izan, olerkari izatez gañera apaiza ere bai-baita. Onek biotz orotan bear du kabi; alkarren artean berriz, —olerkari eta apaizaren artean alegia—, gizonak maita. Olerkariak ere animak yaregiten baiditu bere gixa!

Alabaña, apaiza beti billaka eta beti zai dagon gizona da, beti billaka ari zaizuna eta beti zai egongo zaizuna. Iñork baño obeto daki lasaitu bearrak berekin dakarren estuasuna. Itz ezti, legun eta zuzenaren yabe da ta onetxek animari murgildu-arazten dio bere zauririk sakon eta ezkutuenaraño. Ez ote apika Yauregi berbera galde au egin zuna?

“Urre kaiola, kabia baño
beroago, bai ote?”

III

Bide-biurritzearen aintzinean, oraindik dakust zugaitz artean olerkariaren apaiz-irudia, bere auzoalde galdu, paketsu ta bakartira gel-
diro yoaki.

Olerkari neurkoia (2)

Lizardi, olerkari neurkoia dut irakurgai. Aren irudia datorkit burura. Gogoratu ere, xeei gogoratzen naiz arpegi giartsu aren lañotasunaz. Bekoki zabala, zimur, sakon, luze ta mallakatuaz yosita; begiak gaztain-kolore ta itun-yario; gorputze xabal, salasean bare.

Ardurakeriz kutsutu gabeko bere soñaren apaintasunak alako barretasun uzkur bat zemaion eta bere gizakerak berriz etsipen goiztarrez igurtzitakoaren atsedenaldi. Bere begiratua batez ere ântzi ezifia zan. Kementsuak begi esakorrak dituzte. Lizardi'renak eztitasun eta itxaropen mintzoz here animaren argitasuna sendoro adierazten zuten.

Giputz orokor auxe "olerkari izatearen gaitz ederberak yota" yaio zan. Lizardi'ri gora begira bearrak zeragion, bai-baitzekin goitikoak gizonen begira daudela. Olerkari yatorrari dagokionez bi ikusmenen yabe zan eta bitarteko ere bai, adierazi ta senti baitezakean yenderik geienak orain-gerotan adierazi ez ditzaken gauzak.

Azalpenetan olerkari garai izatera eldu zitzaiguna barne-min kantetan ere nausi litzake eriotzak goiz-egarriz irentsi ezpa'leza. Yoera au gero ta ezagunagoa zizun. Lizardi, geldi-geldi, kanpotik barrenerako bildu-naiak zeragin.

Euskaldun yatorra zanez, Lizardi'k, bere endatik zetorkion izuta-

(2) Gaztelera "conciión" dakar egilleak. Itz au zeatzago legoke euskeraz "laburkoi" esanda. Alabaña, ene ustez, Lizardi laburkoi baño neurkoi zan geiago, bertso ta esaldi bakoitzari neurri doi-doia, —estuxea batzutan, zabaltxeago bestetan— eman-zale baizenun.

suna nagusi ba'zun ere, inoiz-edo bere barren zabal-zabal egiten digu lotsakiro ta bere aopekoea ixil-ixil guganatzen zaigu. Lizardi'k, gauzaren bukatu-bearrak darion uzkurtasun gazi-geza du sarritan pentsagai. Ba'dioanaren kantamiñez dago maiz ta eguzki-yartze ondoan gau urbillaren aintzindari igeska dioan argitasuna zaio gogoratzten. Burutapena igarrika datorkio. Orduan, larrikara etsigaitza erne zaio ezpañetan:

“Oi, zein ituna dan
bera bear au,
nik ez nai eguna
biurtzerik gau”.

Itz soillez iduritsu da. Bere azalpenik bikañenetako baten azken-lerroen ausnarka ari natzaizu oraintxen.

Bere aurrak oeratu berri dituzu. Zorioneko ixiltasuna yabetu da bere egoitzaz. Arestixean, bere seme zarrenaren deabrukeriak, bere lau semetxoen zalaparta astoragarriak yolastoki biurturik zeukaten. Gora-bera onek zirika eragiten dio olerkariari bildu dadin... Aurtzaroa gure berabearraren ispillu yaukal dugu. Aurren azitzea gure biziak daraman beraka geldigaitzaren neurri da. Lerro baten doi-doiko luzeran Lizardi'ri zinkurin orban-gabe au erne zaio:

“Beldur nauk zaartzen ote naizen...”

Ormaetxea idazlearen aburuz, Lizardi'ren olerkiak apurka irakurtzekoak dira. Arrazoi du noski gure olerkariaren adiskide-miñak. Lizardi'ren tankera aditzera-emangarri da, osorik esateke igarri-arazten duna. Lizardi'ren olerkiak geientsuenetan azi iduri dute, ez lore. Izkiai beren lillura erne-erazi dielakoan ere ba'nago. Bere itzak oroimen pizgarri ta animaren zirrargarri dira, ain baitira dojak! Oroitzapen ugariak dakartzin irudia yaso oi du beti. Ontan, Verlaine'n senide deritzat. Gauzari bere-bere zaion giroa xurgatzen berriz mutilla duzu Lizardi!

Euskalduna oartzalle pizkorra da. Gaitasun au bertsolarietan ikus dezakegu sarri. Euskalduna izadiari erne dagokio. Aipuz legorrak gaituzu. Izan ere, euskalduna, gaiaren guna, xurgatuz aterazale baita.

“Ol bat yaso ta ikusi
dut muxu ximela
parre-antxa, bizirik
ba'lirau bezela”.

Alabaña, ez dituzu soilki ikustea ta sentitzea olerkariaren doaiak, entzun ere egiten baitu:

“Gurdibide bakan-ibil ertzetan
masusta sasia dago loretan
Ango kiskalbearra! Ango marmarra!” (3)

Camille Maclair prantzitar irizle ospatsuari irakurririk dakit, Debussy'ren musikagai batzuk aditzean Verlaine'n *yarío* iduri omen zitzaion; Schumann'enak entzutearekin berriz Heine datorkio gogora; Schubert'en sormen zenbaitek berriz Goethe oroi-arazten diote.

Musikariak olerkarien mintzoari yarraiki yoa zaizkiote eres-tresnaren bitartez. Olerkia abesti da. Lizardi'k ba'daki eres-irudiaren berri. Bere olerkietako batzuk *iraulmiñez daude*, arnasa eman-zale, musikagille baten asmamen zai.

Lizardi'k, euskal-idazleak beretutako ezaungarria darakuskigu: garbitasuna. Bañan, ontaz gañera, ezkutupekoa ta azkengabea zaizkio eragingarri. Erromantikoa da-izan. Ez ordea gauzari ezin eman lezakenik eskatzen dioten erromantiko purrukatu orietakoa. Bere olerkietan eztuzu arkitzen gizabarnean neke, iguin ta mingostasuna sor-arazten dituzten yasak. Alderantziz, itxaropena naro-naro ta atsegiñezko gogoetak darakarzkizu. Lizardi egi bakarrari atxiki zaio soilki.

Oraindik-orain, ene adiskide zanaren irudi egiten ari naiz. Tankera ontakoxe gizonak beren bizian izan zuten arikortasun zintzo berbera dute eraille. Beren gogoaren emankizun osoak suturik iltzen dira.

Berriro irakurtzean, bere sinispen eta egiaren yabe naizelarik,

(3) Egilleak olerkiok gaztelerara itzultzen ditu eta aldakizunaren mar-
gultasunari igarririk itz oek esaten ditu: “Itzulgaitza ziñez olerki auen
neurkoitasun bizi ta doia. Itzulketan Lizardi'ren olerkiaren irudi motel bat
besterik ezta. Ain baita itzulgaitza!” Esaldi au irakurkizunaren aritik ebaki
egin dugu ta oar bezela ipiñi, euskerara eman ondoren ezpaitu balio.

neri ere barne-barnetik erten zaizkit bere itz berberak: "Agur...
Egun Aundirorte".

Oar bi.—Erderrazko "retablo" itza adierazteko euskerazko egokirik ezin
asma ibilli nintzan. Azkenean, zerbait ezarri bearrez eta nerontzat ere
asekaitz izanarren, maigibel erabili nuen. Geroenean, itz au adierazteko iru-
ditegi itz asegarrri ta xoragarria arkitu nun Omaetxebarria'tar Iñaki Aitak "Es-
peranto o Vascuence?" izenez argitaratutako idazlan batean. Iñoiz edo ata-
lok liburuturik argitara ba'litez itz orren aldatzea litzake ene atsegiña.

"Grazian Adema" deritzai onaleko bertsuok onela zuzendu bitez geroe-
neko argitaldi baterako:

Zein doatsu gu emen, zorioneko gaztedi,
Bostak yo bitartean maindiretan goxoki,
Yaiki orduko lana; ondoren gosari,
Obeto al-diteke egun berria asi?



LAGUNEK EUSKERATUAK

...and
... ..
... ..

... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..

... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..

... ..
... ..
... ..
... ..
... ..

... ..
... ..
... ..
... ..
... ..

... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..



... ..
... ..
... ..
... ..
... ..

... ..
... ..
... ..
... ..

... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..

RABINDRANAT TAGORE'REN

Kartero gaiztoa

Kartero gaiztoa,

Odei ta uin

Deia

Nausitasun

Gizontxo

Txanpaka-lore

LAGUN'EK EUSKERATUAK

RABINDRANAT TAGOREREN

Kalitero gaiztoa

Odei ta uin

Deia

Nausitasun

Gizontxo

Txanpaka-lora

LAGUNEK EUSKERATUAK

Kartero gaiztoa

I

Ama, esan, zer dala-ta zagoz orren ixil ta illun or lurean jarria?
Ez al duzu, ba, ikusten euria leiotik sartzen ari dala ta zu bustitzen?

II

Entzun, tutua lauak jotzen. Laister da anaia ikastolatik. Esan,
ama, zer duzu gaur orrela egoteko? Aitaren eskutizik artu ez ala?

III

Erritar guziei ekarri dizkie goizean karteroak eskutizak. Neronek
ikusi dut. Aitaren eskutizak bakarrik gordetzen ditu zorroan berak
irakurtzeko. Bai, ama, ongi dakit nik; karteroa oso gaiztoa da!

IV

Begira, ama, ez zaite zu orregatik illun egon. Ara, beste erriko
azoka biar da, bai, ta doala neskatxa lumak eta papera eroatera. Nik

neronek idatziko dizkizut aitaren eskutitz guziak. Ez duzula utsik txikiena ere arkitzen?

V

Zuzen zuzen idatziko dizut A'tik K'raiño. Parrez, ama? Ez duzu uste aitak bezain ongi idazten dudanik? Ikusiko, erregla batekin pamera marratu egingo dut. Ta poliki poliki ta aundi-aundiak egingo izkiak.

VI

Ta amaitzean aita bezain zozo izango naizela uste al duzu, kartero itsusi orren zorroan eskutitza botatzeko? Neronek ekarriko dizut bereala ta irakurtzen lagunduko. Ba-dakit, bai, nik; eskutitz politenak zuri ez ekartzea zaio atsegin karteroari.

Odei ta uin

I

Goiko odeietan bizi diranak, ama, deadar dagidate: "Aizak, gur goiz goizetik illundu arte jolasean ibilli gabiltz; jolas egun sentia-kin ta baita zillar-illargiak ere". Ta nik galde: "Baiña nola igoko zuengana, orren gora?" "Ator, dasaidate, lurralde ertzeraiño, jaso eskuak zerurantz eta guk odeietan aupatuko". "Ama, ordea, nere zai etxean ta ezin utzi ta zuengana igo". Aiek irriparrez albotik egaka alde...

II

Baiña nik ori baiño jolasketa ondotoxo politagoa ezagutzen, ama. Ara; ni odei nintzala, e?, ta zu illargia. Nere bi eskuz zu estaliko ta gela-sapaia izango dugu gure ozkarbi.

III

Uiñetan bizi diranak ots dagidate: "Eguna urratzen dunez gero gaba sartu arte, gu abestu ta abestu ta aurrera goazkik beti, nera jakite-ke". "Ain urruti zuekin nola noake?". "Ator itsaso bazterrera, begiak estu-estu itxi ta itxoin, ta guk uiñetan eramango". Nik berriz: "Amak ez du nai, ordea, illunabarrean etxetik ateratzerik. Nola, ba, utzi ta igesi joan...?". Aiek irriparrez dantzan alde...

IV

Ori baiño jolasketa ederragoa jakiki nik, ama. Ni uiña izango naiz, bai, ta zu ezezagun ondartzat. Nik nere burua iraulka bota ta zure gainean urratuko. Ta ni ta zu nun geran ez du iñortxok jakingo!

Deia

I

Goizero tutua amarrak jotzen ta ikastola-bidean ni. Ta, "zillar ta leiar pitxiak" oiuka, saltzaille orixe topo. Beti patxadan, nai dun bidetik bestetik ez ibiltzen, iñora iritxi bearrik ez; ez ta etxera ere garaiz.

Ai saltzaille ba'nintz, egun osoan karrikan "zillar ta leiar pitxiak" oiuka ibiltzeko!

II

Arratsaldero lauetan ikastolatik irtetean, an ageri dan etxe artako atetzarretik begira ta lorezaia ikusten nik loretegiko lurra atxurtzen. Gogoak ematen diona egiten du bere atxurraz, soñekoa nai aiña zikindu autsez. Ta ez datorkio iñor eguzkitan bezten ari dala ta, urez zipatzen ari dala ta...

Ai lorezai ba'nintz, arratsalde guzian atxurrean ari ta ari iñork eraso bildur gabe!

III

Illun txintakin amak oera bialtzen ni ta kalean gora ta bera gauzaia ikusten leiotik. Karrika uts eta illun; eta argi-mutilla antxe zut. Begi gorri bakarra bekokian basajauna dirudi. Gauzaia joan eta etorri, etorri eta joan bere parola, ta itzala, zabu-zabuka. Ta bere bizian oera bearrik ez.

Ai gauzaia ba'nintz gau osoan, parola eskuan, itzalen ondotik ibiltzeko!

Nausitasun

I

Ama, zure nexka ori tuntuna duzu. Bai ergel gaizoa! Kaleko argiak eta izarrak bereizten ez. Ene!

II

Etxeketan gabiltzala arri koxkorrak egitan jateko dirala uste ta irentsi egin nai ez ditu ba! Idaztia aurrean jarri nik ta AGK ikasi bear dula esan ta arek erriak urratu ta gero, gauza aundia egin bai'lu, pozik algaraz. Buruari eragiñaz asarre egin nik, oso gaiztoa dala esan... Ta parrez berriz jostaketa berri polita dalakoan.

III

Guziak ba-dakite aita ez dala emen. Baiña nik txantxetan, "Aita" deadar egiten ba-dut, eroa antzo bazter guzitara so bera. Ta aita ondoan dala uste. Gobara billa etortzen dan andrearen astoei eskola egiten ari naizenean, zure nexkari irakasle naizela esan ta besterik gabe oiuka asten da. Ta, "Dada, Dada!" neri oska.

IV

Urrena zure nexka orrek illargia arrapa nai. Ganes'i Ganus esan ta izugarria iruditzen zaio. Bai ergel gaizoa! Ama, zure nexka ori tuntuna duzu.

Gizontxo

I

Txikia naiz; noski, aurra naizelako. Baiña aitagin bainbat urte izatean aundi izango ni ere.

Ordun, irakaslea etorri ta esango dit: "Bai berandu. Artu arbel ta idaztiak". Ta nik erantzungo: "Ez al duzu ikusten aundi naizela?; aita bezelakoa. Ez dut nik ikasi bearrik". Ta irakasleak arrituta: "Izan ere. Idaztiak utzi itzakek, gizon aiz ta".

II

Apain jantzi ta azokara joango ni jendez bete-bete dagon garaian. Baiña osaba laisterka etorriko esanaz: "Galdu egingo aiz, enetxo. Tira, tira, aupa eramango aut". Nik ordea: "Aundia naiz, osaba, aita bezelakoa. Bakarrik etorri bear dut nik azokara". "Egia diok, esango osabak, ba-oake edonora. Ez el aiz, ba, gizon?".

III

Kutxa idekitzen jakin egingo nik ta amak, ibaitik itzultzean, ifiudeari diru ematen aurkituko ni. "Zer ari aiz, gizaxo ori?", neri esango, ta nik: "Baiña, ez al dakizu, ama? Ni aundi naiz, aita bezelakoa,

ta nere inudeari ordaindu egin bear". Ordun amak bere buruari:
"Eman bezaio dirua edozeiñi, gizon da ta".

IV

Udazken-oporketan aita etxerako da ta aurra naizelakoan oiñeta-
ko berri-berri ta şedazko jazkiak ekarriko uriburutik. Baiña nik
esango: "Dada'ri eman oriek, aita; ni ere, zu bezela, aundi naiz ta".
Aitak, gogartuz: "Egia dio. Atşegin ditun jantziak erosi ditzake. Ez
al da, ba, gizon?".

II

Bastaldi ondoren, ilen sorbatzen bere, otol egiten duzun txoko-
re txanpaka-izal xerri igarotzen, alsona nabarituko zuk, ama, Baiña
nigandik ezotzkatuak ez igariko.
Barkalondoen, letoren jartze, Barkalonen jartzen zu ta nere zu-
gataron izala ille ta gona gaitzen. Ene izal nirekoa xure idatze-
ren orrian egiten nik; barkalonen ait xerren urte-urtean egin ere. Bar-
kan semeokoren izala zuzentze aitx ematen?
Ilunabarren, barkalonen eskuan, egin zu. Ta ni, barkalonen, in-
terro berrie, ta xure seme ostera. Ta "ipula, ama", eskatuko.

III

"Non ibili zatekiz gaitzotxo orri", zuk. Ta nik "ez ezanen, ama".

Txanpaka-lore

I

Aizi, ama, txanpaka-lore bihurtuko ba'nintz ni, txantxetan, e?, ta zugatz orren puntaren puntan zabaldu, ta irriz urratzen aizetan zabu-zabuka, ta osto berri gaiñean dantzatu, ni nintzanik asmatuko ote zuk, ama? "Non aut, aurra?", zuk ots egingo. Ta nik nere baitan parriri ta geldi-geldi egongo. Poliki-poliki ene orritxoak idekj ta zu ikusiko lanean.

II


Bustialdi ondoren, illea sorbaldan bera, otoi egiten duzun txokora txanpaka-itzal zear igarotzean, atsona nabaituko zuk, ama, Baiña nigandik zetorkizunik ez igarriko.

Bazkalondoan, leioan jarria, Ramaiana irakurtzen zu ta nere zugatzaren itzala ille ta gona gaiñera. Ene itzal nimiñoa zure idaztarien orrian egiñen nik; irakurtzen ari zeran une-unean egin ere. Baiñan semetxoaren itzala zenunik antz emanen?

Illunabarrean, krisallua eskuan, eiaza zu. Ta ni, bat-batean, lurrera berriz, ta zure seme osterera. Ta "ipuia, ama", eskatuko.

III

"Non ibilli atzakit gaiztotxo ori", zuk. Ta nik "ez esanen, ama".



Txanpaka-lora

Aizt, ama, txanpaka-lora hartuko berrieta ez, txantxat, ez, te
ingelt erren postaren puntan zibeldu, te berri errenen sirtan ez-
bu-ebuka, te osto berri gaitzen dextrita, ni zintzantik zentzuko ez
zuk, ama? "Non zut, zurea?", zuk eta aglaga. Te nik zure balar pe-
rriri te gait-gaiti aglaga. Poliki-poliki zue erritzok izeki te zu
Itatko lantzen.

II

Hastaldi ondoren, ilus sorbalden bera, otol egiten jarur berri-
ra txanpaka-lora zue igortzen, zuea zabalitako zuk, ama, Itatko
aldantik zortekinik ez igarriko.

Hastaldian, leian jarri. Berrieta hartzen zu te zue eta
gaitari Itatko ilus te gait gaitari. Eze Itatko zintziko zue, Itatko-
ren erren egiten zuk; berrieta zue zuea zuea zuea egiten zue. Ber-
rieta zuea zuea Itatko zuea zuea zuea?

Hastaldian, Itatko zuea, zuea zu. Te ni, berrieta, zue-
ren berri; te zue zuea zuea. Te "Itatko, ama", zuea zuea.

III

"Zue Itatko zuea gaitari zue", zuk. Te nik "zue zuea, ama".

PUBLICACIONES

DE LA

REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)



MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE MUNIBE, CONDE DE PEÑAFLOIDA, por Gregorio de Altube.

LA EPOPEYA DEL MAR.
por M. Ciriquiain-Gaiztarro. (Agotado).
PASADO Y FUTURO DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA, por José María de Areilza.

HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN TELMO, por Gonzalo Manso de Zúñiga y Churruca.

ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE DE LERSUNDI, por Joaquín de Yrizar.

BREVES RECUERDOS HISTORICOS CON OCASION DE UNA VISITA A MUNIBE, por Ignacio de Urquijo.

LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS Y LA METALURGIA A FINES DEL SIGLO XIII, por Manuel Laborde.

REVISTAS

BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS.

Ejemplar suelto: 15 Ptas.

Suscripción anual: 40 »

EGAN: Ejemplar suelto: 4 Ptas.

Suscripción anual: 14 »

Suscripción anual conjunta a BOLETIN Y EGAN: 50 Ptas.

MUNIBE.—Revista de Ciencias Naturales.
Número suelto: 10 Ptas.

Redacción y Administración: Museo de San Telmo
SAN SEBASTIAN



ESCELICER, S. L.
SAN SEBASTIAN